

# SANTUEN PROTESTAK

*GURE IZENEKO FESTA  
FOLKLORE BESTERIK EZ DA,  
BESTE GUZTIEN ANTZERA GEUK BE  
EGITEN DOGU PROTESTA*



1.  
“Ba datoz santu ta santak”,  
jendearen poz ta kantak...  
Gu ez gaitue asko poztutene  
faltsokeziazo plantak.

2.  
Mendi, baserri ta kale  
danak dira santuzale,  
gure kontura ta gure kontra  
gau ta egun jo ta dale.

3.  
“Negua negu” esanda,  
santu-santa barik joan da;  
gure errukiz izaten ei da..  
zelan egin propaganda!

4.  
Hor gabiltz haizetan sarri  
bahtarren barregarri;  
gure kontura, euren probetxuz  
jentea zelan ekarri...

5.  
Adi gure ingurura,  
dana atso-agura;  
gugaz gaupasa eginda gero,  
gazteak dira logura.

6.  
Luzia eta Xixili,  
hobe da egon ixili...  
Kale ta plaza jai egin eta  
eleizarako bijili!

7.  
San Nikolas ta Bixente  
nor ete da inuxente?  
Gure atxakiz juerga eginda  
gu barik dabiltz dexente.

8.  
San Permin eta San Anton,  
zezen ta txarrien Patron;  
gizonik ez dan ganau-artetik  
gu bagoaz ta hor konpon!

9.  
San Blas ta San Antonio,  
ez dogu gitxi balio;  
Mezan ez, baina dantza-plazetan  
zenbat kristau ta indio!

10.  
Ez daukagu atrakorik,  
ez manifestazinorik;  
bakotxa bere orduan dator,  
ez da behar sekuestrorik.

11.  
Badira maitale finak,  
maiordomu atsegina;  
zaintzen ditue gure ermitak  
ta konpontzen itoginak.

12.  
Ondo ospatu gure jaiak,  
igaro ordu alaiak;  
eta ez ahaztu gu gareala  
zuen zeruko anaiak.

A. Martzel